

- **Entzutekuak:** Javier Ruiz Parkinson adituari elkarrizketa
- **Zer berri:** Martxoaren 8ko egitaraua

soraluzeko  
hamabostekaria **216.** alea  
2010eko otsailaren 27an

# pil-pilean



**ARATUSTEAK 2010**

**Eguraldi grisari kolore biziak**

**GAZTELUPE**  
taberna  
tel: 943 75 20 81

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91  
Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99  
SORALUZE

**MARI MAR HARATEGIA**

Gurean  
Euskal Herriko  
produktuak!

Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Sorraluze

**ARRANO ELKARTEAREN  
XXV. URTEURRENA (1985-2010)**  
*Martxoaren 27a, zapatua*

18:30ean UMEENDAKO ZIRKUA herriko kalietan  
19:00etan SARDINA-JANA Plaza Barrixan  
21:30ean BAZKIDE AFARIXA elkartean  
*(Uxue Alberdi eta Arkaitz Estiballes bertsolarixekin)*

Etorri eta gozatu lagunarte onian!

Antolatzailea:  
Arrano Elkarte



MAITE ETXEBERRIA



OSKAR ELIZBURU

## TXINDURRIXEN PARE

Arri eskutitza idazteko tartea konturatu baino lehen heldu dok. Oraingo honetan takografoan (kilometroak eta erregistratzeko tresna) data euskaraz izateagatik garraiolari batek jasotako isuna etorri jatak burura. Takografoan egunak euskaraz jarri, kontrol batean gelditu eta tapa! Isuna data euskaraz idatzita zegoelako. Isuna ondo merezita gainera! 4.600 eurotxo besterik ez dituk eta. Zeini bururaten jakok Euskal Herritik aibarkatu! Euskal Autonomi Erkidegoa + Nafarroako Foru Erkidegoa + Akitaniako Pirineo Atlantikoak-etik kanpora joan eta ia-ia mundu honetakoa ez den hizkuntza erabiltzea? Beste modu batera esanda, zer dira adibidez txindurrixak natura osoarekin konparatuta, hain txiki, beltz, gauza gutxi? Txindurrik ez balego, akaso naturaren kate horretan igarriko litzake, naturaren oreka galduko litzake? Ez horixe! Baina, baina nondik ateratako burutazioak dira horiek? Zer dira ba txindurrixak animalia erraldoi horien ondoan? Eta munduko kultur eta hizkuntzen aberastasunaren orekan zer izango litzake euskara bezalako hizkuntza ez erabiltzea? Ezebez. Txindurrixen umorearekin bazterrak sarriago zipriztindu behar doguzelakoan najaok. ☞

*Zer dira adibidez txindurrixak natura osoarekin konparatuta?*

Maite Etxeberria

*Ederrak gaittun ba txindurrixok! Txiki eta ikusgaitzak, baina beti lanian*

Oskar Elizburu

Txindurri beltzaren umoriakin hator gaurkuan? Ederrak gaittun ba txindurrixok! Txiki eta ikusgaitzak, baina beti lanian. Txindurrixok egiten dogun lanari esker jabin mundua; izan be animalixa haundi-maundixen kaka birziklatuko ez bagendu, a zelako kaka-pillua!

Euskararen aldeko lanian be, lan txikixek garrantzia haundixa jaukane: takografua euskeraz betetziak, izenak euskaratziak, gure lagun erdeldun horri euskaraz hitz batzuk botatziak, euskaraz bizitzen zenbat gozatzen dogun erakustiak... Txindurri beltzak egiten jittun lan horrek; apal eta ixilik, ezer eskatu barik, egin biharra dagualako!

Baiña bestelako txindurrixak be bajaonaz, gorrixak! Horrek lana egin eta gaiñera haundi-maundixei aurre egiteko kapazak dittun. Erasoren bat egon ezkeru edo txindurritegirako arriskua egon ezkeru, hor joianaz, batuta, beraiena defendatzera!

Pelikula batian ikusi najonan, matxinsaltoen aurrian txidurrixek zela jokatu bihar daben: bildurra kendu, batu eta bakoitzak beria ipini.

Euskal Herrixan, aspaldixan, matxinsalto ugari jaukanau agintian eta txindurri asko lozorruan egon don. Ez al jonau hau ordua, txindurri baltz eta gorrixok batu eta geure etxia askatzeko? Hara, adardeia entzun don, ozen eta indartsu! ☞

Goguan hartzeko

**Euskerari, ama zaharrari, ez mailuarekin buruan joka ibili!**

Maria Olaetxea



## GUTUNAK

### Zuzenketa

Idatzizko komunikabide batek urtarrileko al-biste batean adierazi zuen 2009an zinegotzien soldatak %10 jaitsita 9.000 euro aurrezten zirela. Kopuru hori neronek aipatu nuen 2009ko urtarrilaren 19ko osoko bilkuran, esan nuelarik horixe zitekeela aurreztutako kopurua egun horretan bertan gobernu taldeak aurkeztu zuen proposamenak aurrera eginez gero. Kopuru hori gutxi gora-beherakoa zen, eta zeregin horretarako urte osoan aurreikusitako diru-kopuruaren %10 zen. Sarri, ordea, nola udal mailan hala bizitzako gaintzeko arloetan, aldea egoten da egiten den aurreikuspenaren eta benetan gastatzen denaren artean. Kontu honekin ere horrela gertatu da, 9.000 euro aurreikusi ziren arren, azkenean gastatu zena gertuago zegoen 6.000 euroetatik 9.000 euroetatik baino. Azken kopuru hau da zuzena. EAJren udal taldeak akatsa zuzentzeko eskatu zidan otsailaren 3ko bilkuran eta eskaera horri erantzunez egin dut zuzenketa hau.

Udal Finantziatorako Foru Aldundiko Funtsetik datorren diruan aurreikusten zen murrizketa eta bizi dugun krisialdia kontuan izanik, gobernu taldeak urtea amaitzeko gelditzen ziren hilabetetan soldata %10 murrizteko proposatu zuen 2009ko ekainaren 3ko osoko bilkuran berriro ere.

Beste behin ere, PNV, PSE-EE eta PPk osatutako oposizioak baztertu egin zuen eskaera. Alder-

di horietatik bik, gainera, EAJk urtarrilean eta PSE-EEK ekainean, soldata gobernu taldeko zinegotziok murriztu genezala proposatu zuten, murrizteko eskaera guk egin genuelako.

2009ko ekainaren 29ko gobernu batzordearen bileran ezker abertzaleak eta EAKo zinegotziek osatutako gobernu taldeak urtea amaitu bitartean gure soldata %10 murriztea onartu genuen. Erabaki horrek 1.200 euro murriztea ekarri zuen gutxi gora-behera.

Aurten, ekonomiaren egoera txarrak bere horretan dirauela ikusita eta oposizioak gure proposamena ez onartzeko argudiatu duen koherentzia bera mantenduz, urtarrilaren 13an egindako osoko bilkuran, 2010. urtean zinegotzien soldata %10 murrizteko eskaera aurkeztu dugu. Oposizioak proposamena onartu ez duenez, gobernu taldeak berau osatzen duten zinegotzien soldata murriztea erabaki du urtarrilaren 18ko gobernu batzordean. Neurri honekin, 2009a erreferentziazat hartuta, aurten, 3.100 euro gutxiago kobratuko ditugu gutxi gora-behera.

Idatzi honekin uste dut zuzendu dudala egindako akatsa. Akats hori nire egiten dut pertsonalki eta publikoki EAJko udal taldeak eskatu didan bezala. Agur bat guztioi.

**Txipi Arizaga,**  
**Soraluzeko Alkatea**

### Aparkalekuak: hauteskunde kanpainan hitz eman zutena

**E**AE/ANV: JOSE LUIS ARIZAGA, Alkatea

- DV, 2007/04/12: "Gure taldeak Erregetxeko parking pribatuaren proiektuaren aurrean parking publiko baten aldeko apostua egiten du".

- Pil-pilean, 2007/05/11: "Erreferenduma egingo dugu erregetxeko aparkalekueri buruz".

- Pil-pilean, 2008/01/11: "Erregetxeko aparkalekuekin ere martxan gabiz, baina guk ez dugu lurzorua salduko. Autofinantziazioaren bitartez egitea da gure asmoa".

- Kontzejupetik, 2008/07/01: "Erregetxeko aparkalekuen publikotasuna mantentzeko dauden arazo ekonomikoei irtenbide bat bilatzeko "U"-ko orubean etxebizitza eta aparkalekuak eraikitzeko

proiektua prestatu da. Udal Gobernu honek eutsi egiten dio Erregetxeko aparkaleku publikoak izateko konpromezuari."

**EUSKO ALKARTASUNA: ROKE AKIZU, Alkateordea**

- Pil-pilean, 2007/05/16: "Guk proposatzen dugu "U"-n eraikin bat egitea, bi edo hiru pisukoa aparkalekuekin. Merkiagua da eraikitzia zultzia baino."

Denok dakigu Udal Gobernuak gai honen inguruan egin duena. Informazio gehiago nahi baduzu begiratu [www.soraluzepnv.com](http://www.soraluzepnv.com).

**Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea**

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Pil-pilean**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com) **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saibilburuordetza



SORALUZeko  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Niko Mendia

### I+G+B (I+D+I)

Ikerketa, garapena eta berrikuntza kontzeptuak omen dira krisialditik aterako gaituzten klabeak. Euskal Herriko bazter guztietan sortu edo sortzen ari dira parke teknologiko ikerkuntza guneak. Gune hauek sortzen dituzten enpresak edo bertan instalatzen direnak behar duten langileen perfila, nagusiki, ikasketa zientifiko-teknologikoetan aritutako pertsonena da eta hona hemen koska. Aurtengo selektibitateko azterketetan bi azterketa izango dituzte ikasleek: bata derrigorrezkoa eta bestea, hautazkoa. Derrigorrezko atalean 6 ikasgai ebaluatuko dira; sei ikasgaitik 5 arlo humanistikokoak dira eta bestea berriz, ikasleak aukeratutako ikasgaia. Bigarren azterketan (boluntarioa dena) ikasgai batera edo bira aurkezten dira eta ikasitako modalitatekoak izango dira. Hau da, selektibitateko azterketan 8 ikasgaitik 5 arlo humanistikokoak dira eta beste 3 modalitatekoak. Orduan, zer zentzu dauka ikasleak batxilergoa egiten hasten denean espezialitatea aukeratzea, gero selektibitateko bahean ez badute pisu berdina espezialitateko ikasgaiek? Nola ausartuko dira ikasleak karrera zientifiko-teknologikoak egiten, ikasgai horien oinarriak ezagutu gabe? Norentzako egiten ari dira parke eta gune zientifiko teknologiko horiek? Bertako ikasleentzako edo kanpotik ekarri beharko dituzte zientzialari eta teknologoak?

## Javier Ruiz neurologoarekin berbetan

Javier Ruiz neurologoa Parkinson gaitzian aditua da. Donostia Ospitalean egiten dau lan, mugimendu trastornuak eta gaitz neurodegeneratibua aztertzen. Urtian 400 pertsona inguru pasatzen dira bere kontsultatik. Barixakuan gaitz honen gainian jardungo dau kiroldegiko erakustaretuaren arratsaldeko 19:00etan, DEPARKEK Debabarreneko Parkinson Elkarteak antolatutako hitzaldixan.

### Zer da Parkinsona eta ze senda terapia ditzu?

Parkinsona gaitz neurodenegeneratibua da. Ikertu bihar da ze proteina daren aldatuta eta horrek zela aldatzen daben garunan funtzionamendu normala. Baita zeintzuk diran mugimendua aldatzen daben mekanismuak be. Bi terapia dare: neurobabeslia, gaitza hain agresibua ez izateko, eta bestia erregeneratibua, hondatuta daren garuneko zonak lehengo egoerara ekartzeko.

### Zerk sortu leike Parkinsona?

Oin 10-15 urtera arte uste zan ez zala herentzia jasotzen. Azken hamar urtietan jakin da forma genetiko desberdinak ditzuala eta kasuen %10 baino ez dirala herentzian jasua.

### Premixoren bat jaso dozu ikerkuntza lanagaittik.

2009ko urrian Espainiako Parkinson Federazinuk sarritu gintuan. Gure ikerlana Parkinson gaixueri

eta beren familixerri zuzendutaegonzan. Lehendik ezagutzen ditzugun Parkinson falimilixako kidieri ikerketa genetikua egin gontsezen, anonimuak danak, etorkizunian gaitza jasango leukien detektatzeko.

### Aurrez kasu asko antzeman ditzuzu?

Egixa esan Parkinsona igarri egiten da. Kasu batzuetan ikusten da dardaria daukela, geldo eta makal dabizela. Diagnostikatu ostian badare segittuan egin biharreko gauza batzuk, bizi kalitatia hobetzeko behintzat. Kontuan euki bihar dogu Parkinsonak ez dabela hiltzen, bizi-itxaropena berdina dala. Badare tratamendu sintomatiko bat aplikatuta, kontrolakin eta medikamentu jakinekin, ondo bizi dan jendia.

*“Kontrolakin eta medikamentu jakinekin ondo bizi leike”*

### Ze berrikuntza egin dira?

Asko aurreratu dan arren ondio ez da praktikan ikusi. Pentsau, gaur egun aplikatzen dan tratamendua oin 40 urteko bera da. Oin arte ez da ezer hobirik topatu eta gaitz neurodegeneratibua, alzheimerra edo parkinsona, 60-70 urteko jende danak sufrirtuko ditzu. ☞



## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soroluze  
GIPUZKOA



# Aurtengo aurrekontuan iaz baino 1.800.649 euro gutxiago aurreikusi ditu Udalak

Udal Gobernu Taldeak adierazi du aurtengo aurrekontua iazkoarekin alderatuta, 1.800.649 euro txikiagoa izango dela, 4.389.842 eurokoa. Halere, elkarteei ematen zaizkien dirulaguntzak eta urteko ohiko ekintzen gastuak mantentzeko "esfortzu handia" nabarmendu nahi izan du alkateak. Proposatutako proiektu nagusien artean berriz, futbol zelaia eraberritzea, kiroldegiaren kudeaketa berria eta instalazioen hobekuntza, zinean egokitzapenak, emakume saileko teknikaria kontratatzea, Maisuen Etxebizitzak alokairu sozialera bideratzea, igogailu publikoak egitea, Etxaburueta eta Plaza Zaharra eraberritzea, gaztetxokoarendako lokala egokitzea eta zuntz optikoa herrira ekartzea nabarmendu nahi izan ditu.

## Oposizioko alderdien proposamenak

EAJko Iker Aldazabalek Pil-pilean jakinarazi dionez, bere alderdiak

zortzi proposamen egin dizkio udal gobernuak aurkeztutako zirriborroari. Erregetxeko lur azpiaren salmenta burutzea aparkalekuak egiteko, kiroldegi gainean Gaztelekua eta taberna bideratzea, zine aretoa egokitzea, komun publikoak berritzea, lur azpiko edukiontzia jartzea Etxaburueta, ikastetxean estaldura eta ranpa jartzea, zuhaitzak landatzea eta umeendako parkea egitea Gipuzkoa Etorbidean.

Soledad del Bosque, PSE-EE-ko bozeramailearen esanetan, PSEE-EE-k bost ekarpen hauek egin dizkio aurrekontuari: elkartasun fondoko 6000 euroak Haitira bidaltzea, herriko trafikoa lehengora bueltatzea, Zeleta-San Andres errepidean argiztapena, Itxaropenan igogailua eta Erregetxeko lurretan Udalak kudeatutako parking publikoa.

Ahalegindu arren, ez dugu PPko zinegotziarekin berba egin terik lortu.

## Olinoa birziklatzeko edukiontzia ipini dituzte



Debabarreneko Mankomunitateak sukaldeko olinoa birziklatzeko hiru edukiontzi ipini ditu herrian, Errabal kalean, Olako zubi parean eta bestea Ezoz inguruan. Olinoa, tetrabriketan edo plastikozko pote edo botiletan, tapoia ondo itxita bota beharko da edukiontzietara, kristalezko potetan egotziz gero poteak hausteko arriskua baitago.

## Arrano Elkarrekin 25 urte beteko ditu

Soraluzeko Arrano Elkarrekin 25. urteurrena beteko du martxoaren 18an. Ospakizunak baina, martxoaren 27an egingo dituzte. Antolatzaileen esanetan, egun berezia izango da. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera haurrentzat ipuin kontalaria, Kastroko IKU taldearekin sardina jana, bertsolariak eta herri afaria antolatu dituzte besteak beste.

## Terrorismoa goratzea leporatu diete bi soraluzetarrei

Beñat Ezenarro eta Gorka Salaberria "Txakarra" duela bi aste atxilotu zituzten Torturaren Aurkako egitaraua megafoniaz eta kartelen bidez zabaltzen zihardutela. Aurreko martitzenean Eibarren izan behar zuten epaiketa bertan behera gelditu zen. Izan ere, hasiera batean kalumniak publizitatearekin egotzi bazieten ere, orain, terrorismoari gorazarre egitea leporatzen diete eta euren kasua Madrilerara bidali dute. Uste dutenez, 2 edo 3 hilabeteko epean jakingo dute non eta noiz deklaratuko duten.

## Iñarra harakina finalista Bilbon

Soraluzeko Iñarra harategia etxean egindako txorizoen XIV "Villa de Bilbao" txapelketan sei finalistaren artean sailkatu da. Etxeko txorizo onenaren saria Bakioko Patxi Renteriak jaso du. Aurtengo edizioan 99 parte hartzaile izan dira: Gipuzkoatik 34, Bizkaitik 39, Arabatik 8, Kantabriatik 7, Errioxatik 5, Nafarroatik 4 eta Extremaduratik 2. On egin!



**TXOKO KAFETEGIA** 

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17



**Lakuesta**  
Optika

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak  
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
T. 943 75 30 59

# Martxoaren 8ko aldarriek bere lekua dute herrian

## Asteburu txuri-urdina

Soraluzeko Txuri-Urdinak Elkarateak bere 7. urteurrena ospatuko du martxoaren 6an eta 7an. Zapatu goizez eta arratsaldez puzgarriak izango dira Plaza Zaharrean. 13:00ean buruhandiak izango dira eta gero bazkideek talde argazkia aterako dute Plaza Zaharrean. Txurrukan bazkaldu ostean 19:00etan poteoa egingo dute Senegaleko perkusio taldeak lagunduta. 23:00etan dantzaldia "Extrosion" taldearekin. Domekan berriz, 11:00etan Gorriti eta bere animaliak izango dira Plaza Zaharrean.


## Jubilatuen urteko Batzar Orokorra martxoaren 4an

Itxaropena Elkarateak urteko Batzar Orokorra egiteko bi deialdi egin ditu: lehenengoa arratsaldeko 16:00etan izango da eta 16:30ean bigarrena. Batzarra iazko aktaren irakurketarekin hasiko da. Besteak beste diru-kontuen gora beherak aipatuko dituzte, pasa den urteko memoria egin, 2010eko aurrekontuak zehaztu, bazkideen gora beherak aztertu eta amaitezko juntako kide berriak aukeratu dituzte.

## "Soraluze 1936" lan taldearen aurkezpena

Martxoaren 17an, eguena, Soraluzeko Memoria Historikoa berreskuratzeko lan taldeak bere egitasmoaren aurkezpena egingo du arratsaldeko 19:30ean Zinean. Aipatu moduan, lehenengo "Soraluze 1936" lan taldearen egitasmoa aurkeztuko dute. Jarraian, "Euskal Herriko Egiaren Batzordea" liburuaren aurkezpena egingo du "Lau Haizetara Gogoan" elkarateak. Amaitezko bideo emanaldi bat eskainiko dute bertaratzen diren guztientzat.

Urtero moduan Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko da martxoaren 8an. Egun horretan, emakumearen eskubideak aldarrikatzen dira eta Udaleko Emakumearen Arloak hain-

bat ekitaldi antolatu ditu. Ekitaldien artean, pelikulak, antzerkia, mural margoketa eta zoru pelbikoa lantzen ikasteko ikastaroa ere antolatu dituzte. 

## MARTXOAK 6, ZAPATUA

- 22:15ean, Zine aretoan  
"En tierra de hombres" PELIKULA.

## MARTXOAK 7, DOMEKA

- 17:00etan, Zine aretoan  
"Maitagarri amandrea"  
haur eta gazteentzat PELIKULA.

## MARTXOAK 8, ASTELEHENA

- Arratsaldeko 19:00etan  
Plaza Barrian KONTZENTRAZIOA:  
"Gainditu dezagun menperatzen gaituena"  
lemapean.

## MARTXOAK 12, BARIKAKUA

- 22:15ean, Zine aretoan  
"El pico de las viudas" ANTZERKIA.  
(Zutegi antzerki taldearen eskutik).

## MARTXOAK 13, ZAPATUA

- "2010 arrazoi martxan jarraitzeko" Emakumeen 3. Mundu Martxaren lemapean:  
• 12:30ean MURAL MARGOKETA  
Plaza Barrian

## MARTXOAREN 15 ETIK 25 ERA

- IKASTAROA: "Zoru Pelbikoa Indartzeko ikastaroa" Amazuloko irakaslearekin.  
**Ordutegia:** 18:30etik 20:00ra  
**Lekua:** Udaleko Saio Aretoan  
**Izena emateko epea:** martxoaren 11ra arte, udaletxeko bulegoetan.  
**Prezioa:** 20 euro, 10 euro langabetuentzat.

## MARTXOAK 20, ZAPATUA

- 22:15ean Zine aretoan  
MUSIKA ETA POESIA EMANALDIA



**Etxabe Harategia**  
Euskal txahalkia  
Bildotsa  
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak  
T. 943 75 2375

**aras**  
DIN arauak jarraituz  
eta zehaztasun handiz egindako torniluak  
T. 943 75 17 36 / 18 03  
F. 943 75 22 95  
Industrialdea 20 - 21  
50 Posta Kutxatila  
20590 Soraluze

# GERO ETA EUSKARA GEHIAGO EGOITZAN



**G**aur egun Mesedeetako Ama-  
ren egoitzan dauden aitita-  
amaren erdiak baino gehiago dira  
euskaldunak. Hori ikusita, Zuzen-  
daritzak eta Udalak, egoitzak epe  
ertainean euskarazko zerbitzua  
bermatzeko euskara plana mar-  
txan jartzea erabaki zuten. Pla-  
naren lehen pausoak, eguneroko

jardunean erabiltzen diren doku-  
mentuak euskaratzea eta egoitzan  
bertan euskara eskolak antolatzea  
izan dira. Eskolek arrakasta han-  
dia izan dute. Hamar langilek eman  
dute izena eta astean bi egunetan  
batzen dira ordu eta erdiz. Bejon-  
deizuela!

GORA



## LOREA Euskaldunendako margoak

Profesional honek kiñu goxo bat margotu nahi izan die euskaldunei  
eta hori beti da eskertzekoa. Koloreak bezala, hizkuntzak ere asko  
daude eta denek merezi dute margotzea. Gutxituek gehiago.



## ZER EGIN?

“

*Euskaldunok  
armairutik urten  
bihar dogu.  
Lotsarik barik,  
agertu euskaldun!!*

”

Frantses hiztunak harro berba  
egiten du edonon frantse-  
sez eta harro dago frantsesa  
delako (hizkuntzaz). Katalan  
hiztunak ere harro egiten du  
bere hizkuntzan eta harro  
azaltzen du bere katalan sen-  
tiemndua. Euskaldun askok  
ostera, esperientzia negati-  
boak jasan behar izan ditu  
bizitzan bere hizkuntzarekin  
laga egin dio euskaraz egitea-  
ri, edo oso gutxitan eta jende  
konkretu batekin bakarrik jar-  
duten du euskaraz. Bigarren  
mailako herritar sentitzen da  
euskaraz. Horregatik, euskal-  
dun asko armairuan bizi gara  
oraindik. Bada ordua armairu-  
tik irten eta garen modukoak  
azaltzeko, geure hizkuntzan.  
Aspaldi esan zuten Ferminek  
“Euskalduna naiz eta harro  
nago!”.



BEHERA

## ARANTZA Euskararendako terrenorik ez

Ematen duenez, “terreno” honetan euskararendako lekurik ere ez  
dago. Errotulu hau ezarri zuenak ez zuen gidari euskaldunekin pen-  
tsatzeko arretarik izan.





Zulotik  
begira“BONJOUR! QU'ELLE HEURE  
EST-IL, S'IL VOUS PLAÎT?”

**H**au izan zen 2. mailako frantseseko ikasleek gehien egin genuen galdera abenduaren 21ean, Iparraldera egindako irteeran.

Lehenengo, Baionara iritsi eta katedrala eta klaustroa ikusi genituen. Hotz handia egiten zuenez, Baionako parte zaharra oinez ikusi beharrean “la navette” en bidaiatxo bat egin genuen. Gero, Gabonetako artisauen azoka ikusi eta bertan patinatzeko pistan ere ibili ginen. Ogitartekoa jan ondoren, Miarritzera joan ginen. Hondartzan jolastu eta jarraian, Donibane Loitzunera joan ginen. Donibaneko kaleetan ibili ginen Gabonetako giroaz gozatzen, hori bai! “crêpe” bat ere dastatzeko aukera paregabea izan genuen. A zein gozoa, txokolatearekin...!



Leku guztietan bezala, han ere jaiotza bazegoen baina benetako aktoreduna! Bertako eskola ezberdinetako ikasleek parte hartu zuten bertan, jaiotza honetan! Ederra! Egun osoa, euskaraz eta frantsesez berbetan eman genuen eta hurrengo ikasturtean berriz beste irteeratxo bat egiteko gogoia piztu zitzaigun! Aupa Baiona!





Iturria: Mesedetako Amaren Egoitza

Iturria: Mikel Valero

Iturria: Josune Egaña

Iturria: Naiara Beretxinaga

Iturria: Pedri Lete



Iturria: Naiara Beretxinaga



Iturria: Pedri Lete



Iturria: Miren Exposito

Azpiko argazkia: Carlos De Cos

# KARATU STEAK 2010



Iturria: Mesedetako Amaren Egoitza



Iturria: Jon Osinaga



Iturria: Jon Osinaga



## ESKOLA 2.0 PROIEKTUA SORALUZEN ERE MARTXAN



**E**skola 2.0 ordenagailuen eta pantaila digitalak eskolan erabiltzeko proiektua da. Badirudi proiektu oso interesgarria izango dela, guk behintzat, ilusio handiz hartu dugu. Honen helburua, ordenagailuak erabiliz, ikasketak aurrera eramatea da.

Hasiera emateko, Estatu mailan asmatutako eginkizun hau, ikastetxeko 5. maileri zuzenduta dago eta urtez urte, beste mailalara zabaltzea da asmoa.

Orain dela pare bat aste, ordenagailu eramangarrien batera kargatzeko armairua ekarri ziguten. Armairua zuri-urdira da, errearen kamiseta bezalakoa, eta argi batzuk ditu martxan dagoela jakiteko.


Aste honetan berriz, arbel digitala eta proiektorea ekarri dizkigute; arbelean idazteko boligrafo berezi batzuk erabili behar dira, eta pantaila atzamarrekin ukituz jartzen da martxan. Hornikuntzarekin amaitzeko ordenagailu eramangarriak eta wifi sarea

martxan jartzea da falta zaiguna, eta auskalo noiz helduko diren! Espero dugu aratusteetako oporraldiaren ostean gelan izatea.

Seguruenik ordutik aurrera klaseak bereziak eta dibertigarriagoak izango dira; ariketak koadernoan egin beharrean ordenagailuan bertan egingo ditugu eta zuzenketak gure atzamarrekin arbelean. Bide batez, marrazteko, pelikulak ikusteko, musika entzuteko, ere erabiliko ditugu.

Ordenagailuak erabiltzera ohitu arte gauza gutxi egingo ditugu baina denborarekin pilo bat gauza egingo ditugu. Horretarako gure irakasle gizagai-  
xoak ikastaroak jasotzen ari dira. Beraiek "peñazo" bat dela diote!

Material guzti hau oso garestia denez, honek zaindu beharra azpimarratu digute behin eta berriz! 🐼



## Ze jatia gustatzen jatzu?

### Osasuntsu jaten dozula uste dozu?



Ez, ez dot uste ondo jaten dotenik. Astian zihar jangelan geratzen naiz bazkaltzen eta etxian hobeto jaten dot. Neri saltxitxak jatia da gehixen gustatzen jatana.



Amak egitten dittuan makarroiak kristonak dira! Etxian barazkixak jatera behartuta nago baina ez jataz bape gustatzen. Beraz, ez dot uste oso osasuntsu jaten dotenik.

Neri amak egitten dabean pastia gustatzen jata, formatu danetan, makarroiak, arroza be bai eta tomatiakin. Ez dot osasuntsu jaten, barazkixak eta elikagai sanuak ez dittut probatzen eta!




Nik astian zihar etxian bazkaltzen dot eta amak prestatzen dittuan txipiroiekin flipatu egitten dot! Normalian tinta beltzian jaten dittut. Barazkixak be jaten dittut eta nik uste dot osasuntsu jaten dotela!



# DENBORAPASA

## Irudi Arrotza

Aspiko piezen artean bakarra da ezberdina. Zein da?



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Badator Emakume Langilian Nazioarteko Eguna, emakumien lorpen ekonomiko, sozial eta politikuen aldeko eguna. Egoeriak hobera badihardu be, gizarteko lanpostu garrantzitsuenak oindio gizonen esku dare.

## Gizonak betetzen dittuen lanpostuak emakumiak beteko balittue, aldaketarik egongo litzake?

**NEREA ALTUNA**  
Erizaina



**G**izonak ala emakumiak betetzen dittuen ez dauka zertan igarri. Uste dot gaur egun emakumiak gizonak beste dirala lanian. Horregaittik nere ustez ez litzake igarri biharko.

**M<sup>a</sup> LUISA DE LA FUENTE**  
Jubilatua



**M**ordua, gauzak desberdin egingo lirake. Emakumiendako lanpostu gehixago eta hobeto ordainduta egongo lirake eta sentzibilitate gehixago emakumieri begira. Haurdunak despeditzia adibidez, marginazina da.

**JULIAN BADAORMAETXEA**  
Jubilatua



**M**ingainez emakumiak gizonak baino abila-guak dira. Oin, zelakua dan ikusi biharko litzake, lanerako balio daben ala ez, zenbateraino dakixan eta gauza bat eruateko gai dan ala ez.

**IÑIGO ARRILLAGA**  
Estanpadoria



**E**z zan aldatu biharko eta aldatuko balitz oso geizki pentsatuko jatan. Lanpostuak berdinak izanda ez litzake igarri biharko andria ala gizona daguan atzian, lana eta pertsonian generua autosufizientiak diralako.

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

**ELIZPE** Hortz Klinika  
GURE ZERBITZUAK  
Ortodontzia ikustezina  
Implanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTU

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

**TXURITXU**

zuekin  
gozaten

943 75 24 43  
SANTA ANA KALEA 22 BEHEA

**MAPFRE**

SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabalatz, 5-8 Behea  
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
e-mail: jibarza@infenegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10

**J. R. Elorza margolariaren erakusketa Oreka Art aretoan** Martxoaren 5etik 14ra bitartean Jose Ramon Elorza (Elgoibar, 1957) margolariaren lanak ikusgai egongo dira Oreka Art aretoan. 1978. urteetik dihardu artelanak egin eta erakusketak zabaltzen. Asko izan dira baita bere lanagatik jaso dituen sariak. 1996. urtean adibidez, L'Oreal enpresak Madrilan banatzen duen margo saria jaso zuen.

### Mandril kantautorea gaztetxean

Domeka honetarako plana egin du gaztetxeak. Arratsaldeko 19:00etan Mandril kantautoreak kontzertua eskainiko du eta jarraian, iluntzeko 20:30ak inguruan, jantoki begetarianoa egongo da bertaratzen diren guztientzat.

### Fandango eta arin-arina ikasteko aukera Urrats Dantza Taldearekin



Martxoko lau asteetan zehar helduentzako fandango eta arin-arin ikastaroa antolatu du dantza taldeak. Astean bi iluntzetan bi mailatako eskolak emango dituzte: oinarrizko maila, ezer ez dakitenentzat, eta maila aurreratua, oinarrizkoa jakin eta pausu berriak ikasi nahi dituztenentzat. Eguaztenetan 19:00etan eta barixakuetan 19:30ean batuko dira Plaentxi Herri Ikastetxeko aretoan goiko eskolan. Astean saio bakarrera edo bietara etortzeko aukera ematen dute. Izena emateko bi modu daude: [urratsdantza@gmail.com](mailto:urratsdantza@gmail.com) helbidera idatzita edo martxoko lehenengo astean ikastarora azalduta.

## Iaz Biribiltxoren erakusketan 1.131 bisitari

**M**artxoaren 9tik 28ra bitartean Mikel Valero, Fernando Oregi, Julio Mendikute, Isaac Zamakola, Ekaitz Uzin, Mario Loscos eta Carlos de Cosen 2009ko argazkiak ikusgai egongo dira kiroldegiko erakusketa aretoan. Erakusketako ordutegia honakoa izango da: astelehenetik barixakura arratsaldeko 19:00etatik 20:30era eta zapatu eta domeketan eguerdiko 12:00etatik 13:30era.



Erakusketan ikusgai izango den argazkietako bat

### Biribiltxoren erakusketan 1.131 bisitari

Iazko otsailean Anjel Bolunburu "Biribiltxo"-ren argazkiekin antolatutako erakusketa ipini zuen martxan Kontrargik. Herritarren harrera ezin hobea izan zen, mila lagunetik gora

hartu zuten parte eta. Martxo-rako antolatutako erakusketa berri honek iazkoaren arrakasta bera lortzea nahi dute eta horretarako herritar danak gonbidatu nahi dituzte argazki erakusketan parte hartzera. [↗](#)



### Tabernetako mozerro lehiaketan Gila irabazle

Udalak antolatutako herriko tabernetako mozerro lehiaketan irabazlea Gila taberna izan da eta 150 euroko ordainsaria jaso du. Guztira zazpi taberne hartu dute parte eta udalaren esanetan tabernariak oso gustura hartu dute lehiaketako proposamena.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

**Errekalde 21  
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61



*Disenua eta Sormena*

Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

# Futbol zelaiko lanak hasi dira



Irudian: Ezoziko futbol zelaia obretan

Otsailaren 15ean sartu ziren lehenengoz makinak Ezoziko futbol zelaira. Arduradunek jakinazi dute lanek lau hilabete iraupena izango dutela eta ekaina aldean amaituko direla. Lanen aurrekontua 800.000 eurokoa da, 400.000 Soralezko Udalak ipiniko ditu, 250.000 Aldundiak eta 150.000 Gipuzkoako Futbol Federazioak. [↗](#)

## Spinning klaseak apirilean hasiko dira

Kiroldegian eskainiko den Spinning kirol jarduerak izan duen arrakasta dela eta, Maria Gallastegi kiroldegiko arduradunak jakinarazi du taldeak betetzen hasi direla eta lehen-tasuna kiroldegiko abonatuak izango dutela. Izena emateko kiroldegira jo beharko da eta bertan inskripzio orria bete.

Klaseak ordutegi honetan izango dira:

**Astelehen eta eguaztenetan:**

15:00etan, 19:15ean eta 20:15ean.

**Martitzen eta eguenetan:**

10:15ean, 18:15ean eta 19:15ean.

## Mikel Hernandez txirrindulariak ez du Soraluze Saria jokatu

Denboraldia petral samar hasidu Mikel Hernandez txirrindulari soraluzetarrek. Neguan gogor entrenatu duen arren, giharren kontraktura baten ondorioz orain bi astetatik kiroltik egin ezinda dabil: "geldi egon arren, minez

nago oraindik eta ez dut uste domekako probarako indar berrituko naizenik". Hernandez Euskal Selektzioko Jubenilen taldean ere badabil eta hilabete barru berriz taldera itzuli eta lasterketetan izatea espero du. [↗](#)



## EMAITZAK

### PELOTA

Gonzalez – Laskurain 22  
Bengoetxea VI – Ibai Zabala 18

Titin III – Laskurain 22  
Bengoetxea VI – Otxandorena 15

Gonzalez – Laskurain 22  
Saralegi – Apraiz 16

### FUTBOLA

Orioko – Sora (Erreg.) 2 - 1  
(Jubenilek deskantsua)  
Sora (Kad.) – Urki C.D 7 - 2

## AGENDA

### PELOTA

**Domeka 28, Eibarko Astelena pilotalekuan**

Olaizola II – Mendizabal  
Gonzalez – Laskurain

### FUTBOLA

**Zapatua 27, 11:30ean Almenen**  
Arzimendi K.E. – Sora (Kad.)

**Zapatua 27, 12:00etan Estalan**  
Sora (Erreg.) – Urola K.E.

**Domeka 28, 11:00etan Estalan**  
Sora (Jub.) – Arizmendi K.E.

### TXIRRINDULARITZA

**Domeka 28, Soralezko XIII. Txirrindulari Saria**

**Irteera:** goizeko 9:45etan Estaziño kaletik

**Helmuga:** 12:30ak aldean, San Andres auzoan

Javier Alonso Zelaia  
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
 K.Z. 20.000.434  
 Jon Azkorbebeitia Txurruka  
 K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

**GILA TABERNA**  
 GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK  
 ETA PINTXO  
 GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34





## ZORION AGURRAK



**Alba Rico Gallardo**  
Martxoaren 3an 4 urte!  
Zorionak politta eta  
ondopasa zure urtebetetze  
egunean etxekoan partez.



**Julen Gonzalez**  
Martxoaren 3an 7 urte!  
Zorionak politta!  
Muxu erraldoi bat  
etxekoan partez!



**Yael Trigo**  
Otsailaren 24an 3 urte!  
Zorionak pitufin eta  
muxu pila bat etxekoan  
partez!



**Yaiza eta Adur!**  
Zorionak zuen 8. eta 10. urtebetetzean!  
Muxu handi bat famili guztiaren partez!



**Josune Milan** otsailaren 28an 21 urte!  
**Julene Zabala** otsailaren 25ean 12 urte!  
Zorionak eta ondo pasa zuen urtebetetzean  
familia osoaren partez!



**Josune Saban**  
Otsailaren 24an 11 urte!  
Zorionak eta muxu handi bat  
etxekoan partez!



**Ane Aizpurua eta Marga**  
otsailaren 27 koak biak  
Zorionak eta muxu handi bana  
etxekoan partez

## hildakoak

MIREN URTAZA URRESTI



## LEHTAKETA

- ▶ Zein ageri da argazki honetan?



- ▶ **Saria:** Sagardotegirako irteera doan pertsona batentzat (autobusa eta bazkaria).

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ **Irabazlea:** Mirari Oregi
- ▶ **Juakin Zabala,** herritarra da pasa dan aleko argazkixan agertzen dan soraluzetarra.



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com)

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Arrano Elkartea

## ARRANO ELKARTIAN INAUGURAZINO EGUNA

**A**rgazki hau 1985. urteko martxuan 18xan etaratakua da, Arrano Elkartian inaugurazino egunian. Egun berezixa izan zan herrixan eta beran sorreria ospatzeko, bestiak beste txarangia eta bertolarixak izan ziran. Arranua egun horretan elkarte gastronomiko moduan zabaldu zan, 150

bazkide inguruin. Aurten 25. urteurrena ospatuko dabe.

**Argazkikuak:** Olga Martin, Lurdes Eskibel, Ezoz Perez de Heredia, M<sup>a</sup> Pilar Zuriarrain, Mari Diaz de Guereño, Eva Molledo eta Feliciano Teheran.



*Ez nau izutzen nequ hurbilak  
uda betezko beroan  
dakidalako irauten duela  
orainak ere geroan  
nolabaitezko kate geldian  
unez uneko lerroan  
guztia present bihurtu arte  
nor izanaren erroan.*



*Ez nau beldurtzen egunsentian  
arnas zuridun izotzak  
nun dirudien bizirik gabe  
natura zabal hilotzak  
eguzki eder joan guztian  
argia baitu bihotzak  
eta begien milla ernegai  
iraganaren oroitzak.*

## BENAN RODRIGUEZ

X. URTEURRENA  
2000KO OTSAILAREN 28AN HIL ZEN

*Ez nau iluntzen baratztatikan  
azken loreak biltzeak  
muga guztien arrazoi billa  
arnas gabe ibiltzeak  
arratsaldeko argi betera  
zentzu denak umiltzeak  
amets betezko loa baitakar  
behin betirako hiltzeak.*

# “SORALUZE 1936” LAN TALDEA

AURKEZPENA



## EGITARAUA:

- “Soraluze 1936” lan taldearen egitasmoa
- “Euskal Herriko Egiaren Batzordea” liburuaren aurkezpena.  
(Lau Haizetara Gogoan elkarte)
- Bideo emanaldia

EGUNA: Martxoak 18, eguna

ORDUA: 19:30ean

LEKUA: Zinea

Antolatzailea: “SORALUZE 1936” Memoria Historikoa Berreskuratzeko Lan Taldea

Laguntzailea: Soraluzeko Udala

**PIL-PILEAN ALDIZKARIAN  
ZURE TARTEA IZAN NAHI DUZU?**

**BITTARTETIK ATALA  
DUZU HORRETARAKO**

**AKTUALITATEA, IRITZIAK...**

**NAHI DUZUNARI BURUZ  
IDATZ DEZAKEZU!**

**HORRETARAKO, ALDIZKARIA@PILPILEAN.COM  
HELBIDERA IDATZI EDO 943 751304 RA DEITU**

**GAINDITU DEZAGUN  
MENPERATZEN GAITUENA!**

**Martxoak 8**

**Emakumearen Nazioarteko Eguna**



Soroluzeko Udaleko  
Emakume Batzordea